

# Euskarari buruzko ikerketak Europan: zenbait adibide


*Euskararen lekua munduan eta historian: mitoetatik  
egitateetara*

UEUko Udako Ikastaroak


Eibar, 2014/07/17

Ricardo Gómez López  
(UPV/EHU)  
ricardo.gomez@ehu.es

# “Euskarari buruzko ikerketak Europan”



# “Euskarari buruzko ikerketak Europan”




# “Euskarari buruzko ikerketak Europan”

- Euskalaritza ez da uharte bat
- Europako hizkuntz ideietan txertatuta dago
- Bi mito, bi adibide:
  1. Pablo Astarloa:
    - Euskara munduko lehenengo hizkuntza izan zen
  2. Miguel Unamuno eta Julien Vinson:
    - Euskaldunek euskara ahaztu behar dute gizarte modernoan bizirik irauteko

# Pablo Astarloa (1752- 1806)

## Ideiak:

- Euskara munduko lehenengo hizkuntza izan zen
- Euskaran letra bakoitzak esanahi bat du



# Hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriak XVIII. mendean

1. Teoria tradizionala (biblikoa)
  - Jainkoak emana (*lingua adamica*)
2. Teoria konbentzionala (arrazionalista)
  - gizakiek asmatua
3. Teoria sentsualista (enpirista)
  - naturala

# 1. Teoria tradizionala

- Jainkoak Adami Paradisuan emana
- Zein hizkuntza?
  - hebreera (Elizaren bertsio “ofiziala”)
  - nederlandera, suediera, alemana, zelta... (arrazoi nazionalistak) **(1)**
  - txinera (hizkuntza filosofikoa)
- Kronologia biblikoa (Ussher artzapezpikua, 1650)
- Fede kontua, ez dago frogatzerik

## 2. Teoria konbentzionala

- Hizkuntza gizakiek asmatu, ideiak adierazteko
- Arrazionalismoarekin lotua: berezko ideiak
- Arrazoiaren eta hizkuntzaren arteko lotura logikoa dago → gizakiek asmatua



### 3. Teoria sentsualista

- Enpirista: ideiak zentzumenen bidez jaso, pixkanaka
- Lehen gizakia basatia zen: ez ideiarik, ez hizkuntzarik
- Prozesua:
  - sentsazioa → hotsa/keinua → analizatu → ideiak → esanahiak finkatu

### 3. Teoria sentsualista

- Kronologia biblikoa onartu
- Arrazoiaren eta hizkuntzaren arteko lotura logikoa onartu
- Hizkuntzaren garapena azaldu behar:
  1. Ekintza-hizkuntza
  2. Aho-hizkuntza


## 3.1. Ekintza-hizkuntza




- **Étienne Bonnot Condillac (1714-1780)**
    - Instintuak keinu edo mugimenduak eragin (ekintza-hizkuntza, *langage d'action*)
    - Denborarekin, keinu apalagoak eta oihuak
    - Errepikapenaren errepikapenez, esanahiak finkatu
    - Aho-hizkuntza erabilgarriagoa eta ekonomikoagoa: gehiago erabili eta hitz berrien esanahiak adostu
- ⇒ ekintza-hizkuntza naturala / aho-hizkuntza asmatua

## 3.2. Aho-hizkuntza

- **Charles de Brosses (1709-1777)**
    - Lehen gizakiak hasieratik aho-hizkuntza
    - Lehen hizkuntzaren hotsak eta esanahiak aztertu
      - Kontsonante bakoitzak esanahi bat zuen
      - Bokalek lotura funtzioa zuten
- ⇒ hitzen formaren eta esanahiaren artean lotura naturala





## 3.2. Aho-hizkuntza


- **Antoine Court de Gébelin (1725-1784)**
  - Arrazoia eta fedea adiskidetu nahi
  - Jainkoak gizakiari hizkuntz ahalmena eta mintzoaren organoak eman
  - Gizakiak arrazoia eta hizkuntza garatu, naturari jarraituz

# Pablo Astarloa (1752- 1806)

## Ideiak:

- Euskara munduko lehenengo hizkuntza izan zen
- Euskaran letra bakoitzak esanahi bat du

*Discursos filosóficos*  
(1883 [1805])



## Pablo Astarloa (1752- 1806)

- Lehen hizkuntzaren ezaugarriak **(2)**:
  1. Bakarra
  2. Gizakiengan naturala
  3. Hasieratik ahozkoa eta artikulatua
  4. Perfektua

# 1. Lehen hizkuntza bakarra izan zen

- Elizgizona → hizkuntzen monogenesia
- Baina hebreera ez, euskara baizik



## 2. Lehen hizkuntza naturala izan zen

- Teoria sentsualistari lotzen zaio
- Court de Gébelinek ideiekin bat:
  - Jainkoak gizakiari hizkuntza ahalmena eta mintzoaren organoak eman
  - Gizakiak arrazoia eta hizkuntza garatu, naturari jarraituz

### 3. Lehen hizkuntza ahozkoa izan zen

- De Brosses eta Court de Gébelinek bezala
- Condillac-en kontra
- Ahozkoa eta artikulatua (ez oihuak): hotsak, silabak, hitzak...

## 4. Lehen hizkuntza perfektua izan zen

- Hizkuntza perfektuaren ezaugarriak:
  1. Egokitasuna
  2. Ekonomia
  3. Eufonia

## 4. Lehen hizkuntza perfektua izan zen

- Hizkuntza perfektuaren ezaugarriak:
  1. Egokitasuna: formaren eta esanahiaren arteko erlazio “naturala” **(3)**
  2. Ekonomia
  3. Eufonia

# ...eta gaur egun?

berria.info | Papereko edizioa
Plaza

Larunbata, 2014ko uztaileak 12 - 19:01

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak

Harian | I

Berria.eus » Papereko Edizioa » Plaza

2014-03-18


## Euskaratik eta espaziotik mundua ulertzeko bidean

'Las letras / Hizkiak' liburuan, hizkuntzaren soinuen jatorrizko zentzuan arakatu du Miguel Garai arkitektoak

**MIKEL LIZARRALDE DONOSTIA**

Mundua irakurtzeko eta ulertzeko hizkuntzak duen indarrak mintzo da Miguel Garai arkitektoa (Donostia, 1936) *Las letras / Hizkiak, una interpretación del mundo. Hipótesis desde el euskara y el espacio* liburuan (Artika). Hizkuntzaren indarrak, eta zehazki, euskararenaz, liburua gaztelaniaz idatzita badago ere, euskara baitu abiapuntu, «haren jatorria iraganean gaitzen delako eta bere lehen esatearen jatorrizko zeinuak garbi gordetzen dituelako».

A, B, D, E...Zraino... Euskal alfabetoko hizki guztiak aztertu ditu Garaik, eta bakoitzak espazioa eta mundua irakurtzeko ezaugarri batzuk dituela ondorioztatu du. Horrela, adibidez, D-k gorputzen hedadura adieraziko luke, N-k nortasuna eta norbanakotasuna, R-k energia, unibertsoaren motor gisa eta Z-k arrazoinamendua. «Alde batetik, testuan agertzen diren ahots filosofikoen pentsamenduen eta, bestetik, soinuen zentzuen artean



Miguel Garaik atzo aurkeztu zuen Donostian bere liburua. / A. CANELLADA / ARP

# Miguel Unamuno (1864-1936)

- Euskara ez da egokia bizimodu modernorako. Baztertu dezagun. (4)  
“Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901”



# Julien Vinson (1843-1926)

- Euskara ez da hizkuntza egokia gure mendeko sen demokratikoetarako.

**(5)**

“La science du langage et la langue basque”  
(1874)...



# Iturriak: 1. August Schleicher

- Hizkuntzak izaki bizidunak dira, organismoak **(6)**
- Hizkuntz fenomenoak naturalak dira
- Hizkuntzalaritza natur zientzia bat da



Prof. August Schleicher.  
Die fotografie kreslil F. Kriehuber.



# Iturriak: 1. August Schleicher


- Hiru hizkuntza tipo:
  - Monosilabiko edo isolatzaileak
  - Aglutinatzaile edo eranskariak
  - Flexibo edo malgukariak

# Iturriak: 1. August Schleicher




- Hizkuntzen aurrerabide formala eta bizitza historikoa:
  - Hizkuntza batek hiru egoeretatik pasatu behar
  - Gero eta perfektuagoa (IE, semitikoa) (7)
  - Bilakabide naturala, historiaren aurrekoa
  - Historiarekin hizkuntzaren gainbehera hasi

## Iturriak: 2. Herbert Spencer

- Gizartea organismo biziduna da
- Gizarteen bilakabide “naturala”:
  - Primitiboa
  - Militarra
  - Industriala
- Eurozentrismoa, kolonialismoa...  
(gizarte darwinismoa?)



## Iturriak: 2. Herbert Spencer

- Gizartea organismo biziduna da
  - Gizarteen bilakabide “naturala”:
    - Primitiboa  Isolatzaileak
    - Militarra  Eranskariak
    - Industrialala  Malgukariak
- ⇒ gizarte + hizkuntza darwinismoa (8)

# Euskararen atzerapena

- Unamuno eta Vinson: **(9)**
  - lexiko urria
  - ideia abstraktuetarako hitzik ez
- Hovelacque (1876) → (??) **(10)**
- “arbola”
- Euskarari gorroto? **(11)**

# Interpretazio osagarriak

- Kintanak (2000) Unamunoz:
  - Euskaldunei erronka, froga zezaten oker zegoela
- Oyharçabalek (2008) Vinsonez:
  - Bere ideologiagatik (nazionalista eta errepublikazalea), goi jakintza frantsesez baino ez

# ...eta gaur egun?



# Kredituak

- **Egilea:** [Ricardo Gómez López](#)
- **Data:** 2014ko uztailaren 17a
- **Baimena:** Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)